

SEGMENTAZIOA

Gure produktua, ilea garbitzerako orduan hainbat zailtasun dituzten pertsonentzat sortua da, bai adinagatik, hau da, hirugarren adineko pertsonak, ezintasuna duten pertsonak ...

Gure bezeroei dagokienez, honako hauek izango lirateke. Batetik, hirugarren adineko pertsonak, beraien kabuz garbitzeko arazoak dituztenak. Bestetik, urritasun fisikoa edo zailtasunak dituzten jendea, hau da, laguntza behar dutenak. Horiez gain, denbora aurrezteko erosten duten pertsona partikularrak eta ileapaindegiak aurkituko genituzke, hau da, beraiek lanean ari diren bitartean beste bezero batekin, gure produktuari esker, beraien denbora aurreztu dezakete. Azkenik, etxez - etxe joaten diren ileapaintzaileak, honek esan nahi du, berak eramango duela bere kaskoa joan behar duen lekura.